Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4478

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 8koa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, Gaztemundu programan parte hartzeko aukeratua izan den pertsona batek aurkeztutako ukoaren berri emateko eta ordezkoa aukeratzeko dena.

Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren 2009ko ekainaren 23ko Ebazpen bidez, 2009ko deialdiko Gaztemundu programan parte hartzeko aukeratua izan zen pertsona batek uko egin dio programan parte hartzeari, eta programa hori arautzeko 2004ko urtarrilaren 14ko 8 zenbakia duen EHAAn argitaratutako abenduaren 23an emandako 316/2003 Dekretuaren 12.2 artikuluan uko egiten den kasuetarako ezarritakoarekin bat etorriz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– María Ayelén Ceballosek Gaztemundu programan parte hartzeari egindako ukoa onartzea.

Bigarrena.– Alberto Martín Duhau 2009ko deialdiko Gaztemundu programan parte hartzeko aukeratzea, bera baita ordezkoa.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke erakunde berean hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 8a.

Lehendakaritzaren idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJÓO.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

4478

RESOLUCIÓN de 8 de julio de 2009, del Secretario General de la Presidencia, por la que se hace pública la renuncia de una persona seleccionada para la participación en el programa Gaztemundu, y se designa nuevo participante.

Habiéndose producido la renuncia de una persona seleccionada para la participación en el programa Gaztemundu de 2009, por Resolución del Secretario General de la Presidencia, de 23 de junio de 2009, y de conformidad con lo establecido para los supuestos de renuncia en el artículo 12.2 del Decreto 316/2003, de 23 de diciembre, por el que se regula el referido programa (BOPV n.º 8, de 14 de enero de 2004),

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia de María Ayelén Ceballos.

Segundo.– Seleccionar a Alberto Martín Duhau en su condición de suplente, para participar en el programa Gaztemundu 2009.

Tercero.– Contra la presente Resolución que agota la vía administrativa, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2009.

El Secretario General de la Presidencia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJÓO.